



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/26

Aldundiak herritarren eskariak entzungo ditu, Bizkaiko hainbat puntutan "moeta guztietako pertsonakaz" izango dituan 10 bileren bitartez

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak, Gerediagan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusien osokoan gaur izan dauen esku-hartze bakarrean, bere gobernuak hamar bilera egingo dituala esan dau, lurraldeko hainbat eskualdetan, herritarrek planteetan dabena “entzuteko”, bere eretxiz “barrizaillea” dan gizarte partaidetzako planteamendua, hain zuzen be. Jendearen “inputak” jasotzeaz gain, hamar bilera horreetan Foru Erakundeak “egin dana, egingo dana eta egin behar ez dana” jakinarazoko dau, “gauzatzen ari dan” legealdi honetako ardatzetako bategaz, “Gobernu irekiagaz” bat datorren gardentasuneko ariketan.

Rementeriak azaldu dauenez bilera horreetan “moeta guztietako” pertsonak egotea gurako leuke, eta horreen artean “ekonomia eta kultura arloko eragileak, gazteak edo nagusiak” aitatu ditu. Ahaldu Nagusiak, hitzordu bakotxera “100 pertsona” inguru joatea jarri dau helburu moduan. Pertsona horreek Aldundiaren webgunearen bitartez emon ahal izango dabe izena. Aldundiak “ausazko” telefono deiak be egingo ditu, bileretara joateko beren beregiko deia egiteko, eta gizarte zibileko taldeakaz eta kolektiboakaz “zuzenean” jarriko da hartu-emonetan.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradun nagusiak azaldu dauenez, bilerak –lehenengoa zemendiaren 11n izango da Bilbon– “taldeka” egituratuko dira, Aldundiak legealdi honetarako markau dituan lau ardatz nagusietan oinarrituta: “Enplegua eta jarduera ekonomikoa; gizarte eta lurralde kohesinoa eta aukera bardintasuna; modernotasuna, gertutasuna eta erantzukizuna; eta munduagaz loturea izatea”.

Ahaldu Nagusiak holan erantzun deutso Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak planteau dauen ahozko erantzun-eskeari. Talde horrek, Aldundiak bilera horreen bitartez markau gura eban “ekintza plana” eta, aurreikuspenak kontuan izanda, “ze pertsona eta ze talde” joan behar ziran jakin gura izan dau. Neskutz Rodríguez talde morearen bozeroalea asko poztu da, “azkenean” Aldundiak herritarrak entzun gura dituala ikusita, baina “faltan bota dau hori lehenago egin ez izana”, “benetako arazoak” sortu diranean.

JATAKO ZABORTEGIA

Ahozko beste erantzun-eske bati erantzunez, oraingo honetan EH Bilduk egindakoari, Aldundiak jakinarazo dau Jatako zabortegia “atzealdeko zabortegi” moduan erabilten jarraituko dala uriko hondakinen kudeaketan, “urriaren 5ean” hasi diran Artigaseko lanak amaitu arte, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak baieztu dauenez.

David Lopategi EH Bilduko batzarkideak salatu dauenez, Jata urte honetako zezeilean jarri zan barrero martxan, salbuespen moduan, Artigaseko zabortegia ordezkatzeko, instalazino harek bere lurak egokitzen ebazan bitartean, “9 hilebete” iraungo eben lanen bitartez. Koalizinoko abertzaleko batzarkideak adierazo dauenez, momentuz “ez dago” Artigas zabaltzeko –otsailen itxi zan behin behinekotasunez– eta Jatako zabortegia zigilatuzeko “datarik”. Jakinarazo dauenez,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

zabortegei horrek “oso usain txarrak” eragiten ditu inguruetan, ez diralako beteten ari Aldundiak holango eragozpenak saihesteko iragarri ebazan neurriak, “egunero” lurragaz zigilatzea, adibidez. Egoera hori larritu egin da TMB greban egon dan bitartean, Jatara tratatu bako hondakinak heldu diralako.

Unzuetak autortu egin dau “Aldundiaren borondatek kanpo geratu dan hondakinen isurketa gordina” gertau dala, TMBko beharginen greba dala eta, baina argi itzi gura izan dau zaborra estaltzea “ezarritako denporak eta prozedurea betez” egiten dala, egin beharreko jarraipen teknikoaren bitartez.

Talde Mistoak eskatuta, Arturo Aldecoa batzarkidearen eretziz “zabaldur ezkerer desagertuaraztea ezinezkoa dan” “fusarium circinatum” onddoa Bizkaiko basoetan zabaltzearen gainean be egin dau berba Unzuetak. Diputatu andreak esan dauenez, 2016ko datuek erakusten dabenez, 2016an aurreko urteetan “baino gitxiago” zabaldur da, basozaintza zerbitzuak emon dituan datuak kontuan izanda. “Gaur egun”, onddoak “radiata pinuan” daukan presentzia "Aulestiko, Igorreko, Kortezubiko, Muxikako, Galdameseko eta Karrantzako" basoetara mugatzen da. Unzuetak azaldu dauenez, onddoa kontroletako tratamendu kimikoak eta mozketak egiten dira inguru horreetan, eta jaubeak euren egurra modu “egokian eta zuzenean” garraiatzera derrigortzen dira, onddoa ez zabaltzeko.

ALDAKETEA UNIBERSIDADEKO AUTOBUSEN GERALEKUAN

Bilboko Termibusetik Leioan dagon unibersidadeko campusera doan Bizkaibusen egungo zerbitzua zabaltzea beharrezkoa iruditzen ete jakon galdetu deutso Podemos Bizkaiak Aldundiari, Nuria Atienzaren berbetan ikasle batzuk “lurrean geratzen diralako”. Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatuak, orain denpora gitxi indartu egin dan zerbitzuak orain arte moduan jarraituko dauela erantzun deutso, “15 minutuz behingo” maiztasunakaz bidaiari gehieneko goizeko orduetan, 07:30etik 09:00etara, maiztasun hori nahikoa dalako eskariari erantzuteko.

Aldundiko arduradunak guzurtau egin dau bezeroak garraio barik geratzen diranik. “Asko jota, autobus batetik bestera dagozan 15 minutu horreek itxaron beharko ditue”. Gogoratu dauenez, unibersidadeko eskari handiena ikasturteko lehenengo hilebeteetan izaten da. “Iraila eta urria izaten dira bidaiari gehieneko hilebeteak”. Urteko gainerako hilebeteetan ez da gauza bera gertatzen. Reyesek esan dauenez, “zemendiaren 7tik” aurrera, Termibusen egin behar diran lanak dirala eta, autobusak Zunzunegi kaletik abiauko dira, EITBren instalazioen ondotik.

PP taldeak Bizkaiko Mobikortasuneko Agintaritzaren gainean egin dituan erantzun-eskeei erantzunez, legealdi honetan errealidade bilakauko dala aurreratu dau Reyesek. Administrazioen artean akordioa dago erakunde hori martxan jarteko, baina hurrengo pausua, une honetan osatzeko prozesuan dagon Eusko Jaurlaritzak emon beharko dauela esan dau, administrazio hori dalako hitzarmena onartu behar dauena. Dana dala, azaldu dauenez, erakundeak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren barruan ari dira beharrean “ondore gutzietarako”.

Metroaren 5. linearen eraikuntzari jagokonez, eta Talde Popularraren beste erantzun-eske bati erantzunez, “instalazioen proiektuen idazketea datoza egunetan” esleituko dala jakinarazo dau Reyesek. Javier Ruiz bozeroale popularrak, metroa Galdakaora luzatzeko beharrei ekitea eskatzeko 40.000 sinadura jaso izanari erantzutea eskatu deutso.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

BIZKAIKO 160.000 ZERGADUNEK BGAE-AK EDO PENTSINO PLANAK DITUE

Beste alde batetik, Ogasun eta Finantzetako diputatuak behin baino gehiagotan hartu behar izan dau berbea, katastroaren barri emoteko prozesua eta diru-bilketaren jatsierea dirala eta oposizioak egin dituan itaunei erantzuteko. Beste erantzun batean, Podemos Bizkaiak eskatuta, lurraldean BGAEak edo pentsino planak zabalik dituen zergadunen kopuruaren barri emon dau. “160.000 pertsona inguru” dira, zergadun guztien %28, hain zuzen be. Talde moreak, pertsona horreetatik biztanleen arteko errenta maila baxuenean zenbat dagozan jakin gura izan dau, bere eretziz diru-sarrera handienak dituen pertsonen kasuan ez dalako bidezkoa Foru Ogasunak aurreikusten dituan “salbuespen” fiskalak apliketea.

Iruarizagak, produktu horreek tributuen ikuspegitik jasoten daben tratamendua ez dala ezelango salbuespena argitu ostean, 2014ko datuak kontuan izanda, onuradunak “tramu guztietan” dagozala adierazo dau. 160.000 zergadun horreen “erdiak baino gehiagok”, “90.000 inguruk”, “0tik 31.000 eurora” doan errenta mailela daukie, eta jasoten dituen itzulketak “108 milioikoak” dira. Hurrengo tramuan, errentako "46.350" euro artekoan, "44.599" zergadun dagoz, "88 milioi euroko" murrizketakaz. "66.650" euro arteko errenta daukienak "14.921" pertsona dira, eta jasoten dituen itzulketak “45 milioikoak” dira. Eta, bukatzeko, Ogasunak “53 milioi itzuli eutsezan 66.000 eurotik gorako errentak dituen 12.000 zergadun ingururi”.

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Saioaren hasieran, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak Erakunde Adierazpena irakurri dau. Bertan eskaria egiten jake Espainiako Gobernuari eta nazinoarteko erakundeei “beharrezkoak diran ekintzak martxan jarri daiezan Marokoko gobernuaren aurrean, instituzinoen edo giza eskubideen eta lankidetzaren arloan behar egiten daben erakundeen bisitak ezelango oztopo barik sartu daitezcan Mendebaldeko Saharako lurraldean eta bertako biztanleakaz alkartu daitezcan”, urriaren 9an, Marokoko gobernuak “giza eskubideen ikuskatzaileen euskal ordezkariak berak okupata daukan Mendebaldeko Saharara sartzea debekau eta gero”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/10/2016

La Diputación escuchará las demandas ciudadanas a través de diez reuniones, en diferentes puntos de Bizkaia, con personas "de toda índole"

El diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, en su única participación hoy en el pleno de Juntas Generales de Bizkaia que se ha celebrado en Gerediaga, ha anunciado que su Gobierno se reunirá en diez ocasiones, en diferentes comarcas del territorio, para “escuchar” lo que plantea la ciudadanía, un planteamiento de participación social que define como “novedoso”. Además de recibir los "inputs" de la gente, esta decena de reuniones servirán para que la Institución foral cuente “lo que se ha hecho, lo que vamos a hacer y lo que no vamos a hacer” en un ejercicio de transparencia que encaja con uno de los ejes de la legislatura que “se está materializando”, como es el “Gobierno abierto”.

Rementeria ha explicado que en estas reuniones espera contar con la asistencia de personas “de toda índole” entre las que ha citado, “agentes económicos y culturales, jóvenes o mayores”. El diputado general se ha puesto como objetivo que acudan a cada cita unas “100 personas” que podrán apuntarse a través de la página web foral. La Diputación realizará también llamadas telefónicas “aleatorias” para hacer un llamamiento a la asistencia, y se contactará “expresamente” con grupos y colectivos de la sociedad civil.

El máximo representante del Ejecutivo vizcaíno ha precisado que los encuentros -el primero será el 11 de noviembre en Bilbao- se estructurarán “por grupos” en base a los cuatro ejes cardinales que la Diputación se ha marcado para esta legislatura: “empleo y actividad económica; cohesión social y territorial, e igualdad de oportunidades ; modernidad, cercanía y responsabilidad; y conexión con el mundo”.

El diputado general ha contestado así a una pregunta oral planteada por el grupo juntero Podemos Bizkaia, que quería conocer el “plan de acción” que iba a marcarse la Diputación con estos encuentros, y “qué personas y colectivos” estaba previsto que acudieran. La portavoz del grupo morado, Neskutz Rodríguez, se ha alegrado de que “por fin” la Diputación quiera escuchar a la ciudadanía, aunque ha “echado de menos que no se hubiera hecho antes” cuando han surgido los “problemas reales”.

VERTEDERO DE JATA

En otra pregunta oral, en esta ocasión de EH Bildu, la Diputación ha informado que se seguirá utilizando el vertedero de Jata como “vertedero de cola” del sistema de gestión de los residuos sólidos urbanos del territorio hasta que no concluyan las obras de Artigas que comenzaron “el 5 de octubre”, según ha confirmado la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta.

El apoderado de EH Bildu, David Lopategi, ha denunciado que Jata se reactivó en febrero de este año de manera excepcional para sustituir al vertedero de Artigas, mientras esta instalación



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

acondicionaba el terreno para su uso mediante unas obras que durarían “9 meses”. Según el juntero de la coalición abertzale, de momento “no existe fecha” para abrir Artigas -se cerró provisionalmente en febrero- y sellar el vertedero de Jata, un depósito que está generando “malos olores” en las inmediaciones, por no cumplirse las medidas que la Diputación anunció para evitar molestias como el sellado “diario” con tierra, algo que se ha visto agravado durante la huelga de la TMB al llegar a Jata desechos sin tratar.

Unzueta ha reconocido que se ha producido un vertido de basura “en crudo ajeno a la voluntad de la Diputación” como consecuencia de la huelga de los trabajadores de la TMB, si bien ha afirmado que la cubrición de la basura se hace “en base a los tiempos y al procedimiento establecido”, mediante el correspondiente seguimiento técnico.

Por indicación del grupo Mixto, Unzueta se ha referido también a la extensión del hongo “fusarium circinatum” en las masas forestales de Bizkaia, “imposible de erradicar si se extiende” según el apoderado Arturo Aldecoa. Los datos de 2016 arrojan que el hongo se ha extendido en 2016 "en menor medida" que en años anteriores, según la diputada, en base a los informes de la guardería forestal. “A día de hoy” la presencia del hongo en el pino "radiata”, se localiza en masas forestales de "Aulestia, Igorre, Kortezubi, Muxika, Galdames y Karrantza". Unzueta ha explicado que para controlarlo se realizan tratamientos químicos y cortas en esas zonas, y se obliga a los propietarios a transportar la madera de forma “correcta y adecuada” para evitar su extensión.

CAMBIO DE PARADA DE LOS AUTOBUSES A LA UNIVERSIDAD

Podemos Bizkaia ha preguntado a la Diputación si ve necesario ampliar el actual servicio de Bizkaibus que conecta con el campus universitario de Leioa desde la Termibus de Bilbao ya que hay estudiantes que “se quedan en tierra”, según Nuria Atienza. El diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha respondido que el servicio, que ha sido reforzado recientemente, seguirá como hasta ahora con frecuencias de “15 minutos” en la hora punta de mañana entre las 7:30 y 9:00 horas, suficientes para cubrir la demanda.

El responsable foral ha negado que se queden clientes sin transporte. “Como mucho tienen que esperar esos 15 minutos” entre autobús y autobús. Ha recordado que la mayor demanda de transporte universitario se produce precisamente durante los primeros meses del curso académico. “En septiembre y octubre es cuando hay mayor agobio”. El resto del año no ocurre lo mismo. Reyes ha informado que a partir del “7 de noviembre”, y como consecuencia de las obras de Termibus, los autobuses partirán de la calle Zunzunegi, junto a las instalaciones de EITB.

A preguntas del PP sobre la creación de la Autoridad de Movilidad de Bizkaia, Reyes ha vaticinado que será una realidad durante esta legislatura. Existe un acuerdo entre las administraciones para ponerla en marcha, aunque ha informado de que el siguiente paso corresponde darlo al Gobierno vasco, en pleno proceso de formación, administración que debe aprobar el convenio. En cualquier caso, ha explicado que las instituciones están trabajando “a todos los efectos” en el seno del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

En relación a la construcción de la Línea 5 del metro, y constestando a otra cuestión del grupo Popular, Reyes ha comunicado que se adjudicará “en los próximos días la redacción de los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

proyectos de las instalaciones”. El portavoz popular, Javier Ruiz, le había espetado a contestar al hecho de que se hayan recogido 40.000 firmas pidiendo que arranquen ya los trabajos de prolongación del metro a Galdakao.

160.000 CONTRIBUYENTES VIZCAÍÑOS CON EPSV O PLANES DE PENSIONES

Por otro lado, el diputado de Hacienda y Finanzas, ha intervenido en varias ocasiones para atender las interpelaciones de la oposición en relación al proceso de notificación del catastro y a la bajada de la recaudación. En otra respuesta, ha dado cuenta, a petición de Podemos Bizkaia, del número de contribuyentes que tienen abiertas EPSVs o planes de pensiones en el territorio. Son “unas 160.000 personas”, el 28% del total de contribuyentes. La formación morada quería saber cuántas de ellas formaban parte del nivel de renta más bajo de la población, ya que entienden que no se pueden beneficiar de igual manera de las “exenciones” fiscales previstas por la Hacienda foral, en relación a las personas con mayor poder adquisitivo.

Pues bien, Iruarrizaga, después de aclarar que el tratamiento tributario a estos productos no es ninguna exención, y con datos de 2014, ha dicho que “en todos los tramos” hay beneficiarios. “Más de la mitad” de esos 160.000 contribuyentes, “unos 90.000”, tienen un nivel de renta que va “desde 0 a 31.000 euros” y acumulan devoluciones por importe de “108 millones”. El siguiente tramo, el que va hasta los “46.350” euros de renta, afectaría a “44.599” contribuyentes, con reducciones de “88 millones de euros”. Los que van hasta los “66.650” euros serían “14.921” personas con devoluciones de “45 millones”. Y, por último, Hacienda ingresó “53 millones” a unos 12.000 contribuyentes con rentas superiores a los “66.000 euros”.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Al inicio de la sesión, la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha leído una Declaración Institucional en la que se solicita al Gobierno de España y a las instituciones internacionales que “emprendan cuantas acciones sean necesarias ante el Gobierno de Marruecos para que visitas de instituciones u organismos que trabajan en el campo de los derechos humanos y la cooperación tengan libre acceso al territorio del Sáhara Occidental y a su población”, después de que el 9 de octubre el gobierno marroquí “denegara el acceso a la parte del Sáhara Occidental que mantiene ocupada a una delegación vasca de observadores de derechos humanos”. (Ver texto completo en documento adjunto).